

## **Irri-solas kutxa**

### **1- Bi ipurdi mazela**

Bi ipurdi mazela elkarrekin ibiltzen dira. Batek dio besteari:

-Ea, zer egiten dugu gaur?

-Prrrruut!

### **2- Lo egiten**

Haur batek galdegiten dio bere aitari:

-Aita! Badakizu non lo egiten den gehienik?

-Ez, haurra, ez dakit!

-Ikastolan, Aita, ikastolan...

### **3-Tigre**

Irakasle batek ikasleei tigreei buruz idaztea eskatzen die. Hauek nola bizi diren, non...

-Tigreen gainean?- galdegiten Totok.

Orduan, Toto zoora doa eta tigre baten gainean idazten hasten da!

### **4-Lan txarrena**

Hortz-eskuila batek erraten dio komuneko paperari:

-Batuetan lan txarrena dudala pentsatzen dut.

Komuneko paperak orduan:

-Segur zara?

### **5-Zozoa**

Irakasleak erraten du:

- Zozoa dela pentsatzen duena altxa dadila!

Toto altxatzen da. Orduan irakasleak galdegiten dio:

-Uste duzu zozoa zarela?

-Ez, baina pena ematen dit zu bakarrik izatea...

### **6- Asmakizuna**

11 zango ditut, 10 beso, 3 begi eta beharriak denetan. Nor naiz?

-...

- Gezurtari bat!

### **7- Ama**

Haur batek galdegiten du bere amari:

- Zer duzu sabelean?

Amak erantzuten dio:

- Zure anaia, maitea.

- Zergatik jan duzu?

### **8-Bainugelan**

-Goiz honetan, umore txarrean naiz, ileak nola-nahika, ez naiz fleitean- dio ile eskuilak.

-Nik badut mukia dilindan!-pleinitzen da dutexulua.

-Eta nik zer erran behar nuke- zinkurinka xaboiak- ez duzue ikusten nola mehatzen naizen!

## **9-Kosmonauta**

- Ni, handitu eta, kosmonauta izanen naiz eta eguzkiaren gainera joanen naiz.
- Ezin da, sobera dirdiratzten du, erreko zara.
- O! Ez da larria, gauaz joanen naiz!

## **10- Alfabetoa**

Totoren irakasleak galdegiten dio:

- Zein da alfabetoaren lehen letra, Toto?
  - E, e, e
  - Ez ez da e, Toto. Berriz erraten baldin baduzu leihotik aurtikitzen zaitut!
  - E, e, e
- Orduan, irakasleak botatzen du leihotik. Eta hor Totok:
- A, a ,a, a, a.....
  - Bai hori da Toto, a letra!

## **11-Izenordainak**

Toto ikasgelan dago, erdi lo. Irakasleak galdegiten dio:

- Toto! Bi izenordain erraten ahal dizkidazu, otoi!
- Nork? Nik?
- Txalo Toto, bikain!

## **12- Xakur**

- Nola deitzen da patarik gabeko xakur bat?
- ...
- Ez duzu balio deitzea, xerka joan behar da!

## **13-Ibaia**

Totok galdegiten dio bere irakasleari:

- Irene, komunera joan naiteke?
- Bai!- ihardesten dio irakasleak- Baina lehenik, galdera honi erantzun behar diozu. Zein da munduko ibairik handiena?
- E e e e e,... ez dakit baina uste dut nire kadiraren azpikoa dela...

## **14-100 irri-solas**

Hiru neska lehiaketa batean ari dira.100 irri-solas entzun behar dituzte eta irririk egin gabe atxikitzen duenak irabazten du.

Lehena 10.ean irriz hasten da, galtzen du. Bigarrena 14.ean. Hirugarrena 99.ean baizik ez da irriz hasten.

- Zer ona! Sobera irrigarria!
- Zein 99. txistea?
- Ez lehena, orain ulertu dut!

## **15-Aro txarra**

- Uau! Iupi!-erraten du Totok.
- Zer duzu?- galdegiten diote lagunek.
- Irakasleak erran du euri edo haize izanik ere kontrola ukanen dugula!
- Eta non da berri ona?
- Elurra da!